

LEIOA. Bulebarrean bisitau ahal izango da, datorren domekea arte

# Erakusketea zabaldu dabe herrian txakolinaren ganean

Mendibileko proiektuaren ganeko informazio guztia be jaso dabe



VERONICA MUÑOZ

Txakolinaren historia eta Mendibileko proiektua ezagutzeko aukerea daukie herritarrek, erakusketan.

Veronica Muñoz |

Txakolinaren ganean gehiago jakin gura dauenak aukera ederra dauka egunokaz, Leioan. Izan be, herriko Bulebarrean horren ganeko erakusketea zabaldu dabe, karpa handi baten, eta datorren domekea arte bisitau ahal izango da.

Bizkaiko txakolinaren ganeko erakusketan, hain zuzen be, geure ardaoaren ganeko azalpen guztiak jakin ahal izango dabez herritarrek. Horretarako hainbat informazio ohol ipini dabe, eta bertan gaiaren ganean jakin behar dana azaltzen da.

Besteak beste, informazio oholetan ardaoaren jatorria, zelan hedatu zan, Errioxa eta Nafarroaren artean orain mende batzuk izandako «ardoaren ge-

rrak», txakolina puri-purian egon zan sasoiaren ganeko azalpenak, XIX. mendeko krisialdia eta gaur egungo egoera be ezagutu ahal izango dira. Bizkaiko Txakolina jatorri izenaren sorrera, funtzinoak eta edari-gaz loturiko bitxikeriak be kontsultau leitekez, eta txakolinaren ganeko *Trivial pursuit* jolasaren bertsioa be ipini dabe, ordenagailuagaz olgetako.

Beste alde batetik, erakusketan Mendibile jauregiaren inguruan onartuta dagoen proiektuaren ganeko informazio guztia batu dabe, eta proiektuaren maketea be ipini dabe karpapean.

Mendibile jauregia, hain zuzen be, txakolinaren museoa zabaltzeko erabiliko dabe. Horren ondoan, ganera, parke

handia egiteko asmoa daukie eta, orokorrean, inguru osoa urbanizetako proiektuari ekingo deutso Udalak.

## Euskal Astearen barruan

Bulebarrean zabalduko erakusketea, hain zuzen be, Euskal Astea ospatzeko prestatu daben egitarauaren barruan sartzen da. Pailazoan ikuskizuna, bertso saioa eta euskal mikologiaren ganeko berbaldia be egongo dira, egunokaz.

Horrezaz ganera, datorren domekan, goizeko 9:00etatik aurrera, Nekazaritza Azokea egingo dabe Leioako Bulebarrean: hamabosgarren aldiz. Horren inguruan beste hainbat ekitaldi izango da, tartean umeentzako herri kirolak eta bertso saioa.

dainduko dau. Bien bitartean, Camariñaseko Udalak egondia eta janaria ordainduko deustiez boluntario getxoztarrei.

50 pertsonarentzako autobusa prestatu dabe gazteok; halandaze, ez dabe baztertzen autobus gehiago ipintea, jente asko joateko prest egon ezker. Boluntarioek abenduaren 20an, bariku arrastian urtengo dabe Getxotik, eta hilaren 23an itzu-

liko dira, hiru egunetan beharrean egon osten.

Laguntzeko prest dagozan herritar guztiak, Getxokoek eta kanpokoek be, datorren eguaztena, hilaren 18a arte eukiko dabe izena emoteko aukerea. Horretarako, Getxoko Ingurumen Sailera jo behar dabe. Atara baino lehenago batzarra egingo dabe, bidaiaren ganeko zehaztasun guztiak emoteko.

GETXO. Interesadunek hilaren 18a arte emon leikie izena, herriko udaletxean

## Galiziako Camariñaseko hondartzak garbitzen laguntzeko bidaia eratu dau gazte talde batek

V.M. |

Algortako gazte talde batek Galiziako Camariñas herrira joateko bidaia antolatu dau, marea baltzaren eraginez kalteturiko hondartzak garbitzen eta behar dan guztian laguntzeko helburuagaz. Getxoko Udalak 1.500 euroko diru laguntza emon deutse, eta beharrotarako preminazkoa dan materiala be or-

## LAGUARREAN

### URIBE KOSTA

#### Uribe Kosta digitalak 70.000 bisita baino gehiago jaso dauz 2002. urtean

Uribe Kosta digitalak, sarean eskualdeko informazioa batzen dauen web orriak, 70.000 bisita baino gehiago jaso dauz 2002. urteko hasieratik abendua arte, arduradunek eginiko azterketaren arabera. Egunkari digital barriaren proiektua joan dan urteko zementarian ipini eben martxan. Batez be, eskualdeagaz loturiko jenteak bisitau dau orria, inguruko informazioa lortzeko. Halandaze, atzerriko bisitariak be egon dira, eta danetara 60 herrialdeetatik eginiko loturak euki dauz egunkari digitalak. Azken egunokaz, Prestige ontziaren marea beltza Bizkaira ailegau zanetik, hain zuzen be, bisitak bikoiztu egin dira. Helbidea hauxe da: [www.ukdigitala.com](http://www.ukdigitala.com).

### GETXO

#### Ekonomiaren ganeko mahai-ingurua

Getxoko popularrek mahai-ingurua antolatu dabe gaurko, Algortako Kultur Etxean. Jarduera ekonomikoaren ganeko zergea kentzearen ganean egingo dabe berba, 20:30etik aurrera, eta merkatari eta profesional guztiei zuzenduta dago. Carlos Olazabal, Marisa Arrue eta Diego Pagadigorria popularrek, eta Eduardo Andrade dendariaren alkarteko zuzendari ohiak hartuko dabe parte.

### GETXO

#### Erromoko aparkalekua egiten hasi dira

Erromoko aparkaleku barriaren proiektua onartu dau, asteon, Getxoko gobernu taldeak. Beraz, beharrrak laster hasiko dira. Proiektua atzeratu da, hasieran solairu biko eraikina egiteko asmoa euki arren, azkenean hiru solairuko aparkalekua egingo dabela. Lurpeko aparkalekua egiteko epea 18 hilabetekoa da. Beraz, 2004. urteko udarako amaituta egongo dala itxaroten dabe.

### SOPELA

#### Boluntarioen zerrendea osotzen dabilz, preminazkoa izan ezker herriko hondartzak garbitzeko

Sopelako Udalak boluntarioen zerrendea osotzen dabil egunokaz, Prestige ontziak eragindako marea beltzaren aurrean, preminazkoa izan ezker, herriko hondartzak garbitzen lagundu daien. Zerrendan egon gura dabenek udaletxean emon leikie izena edo, gurago ezker, 94 676 26 52 telefono zenbakira jo. Udalak, ganera, garbiketa beharretan erabilteko materiala hartu dau, hori guztiori, agintarien berbetan. «preminazkoa izan ezker hondartzak garbitzeko eta boluntarioak babesteko behar dan guztia eskura izateko».

## AGENDA

### GETXO

**Zinekluba:** *Tanguy, ¿Que hacemos con el niño?*, 20:00etan, Areetako Gran Cineman. Sarrereak 2,40 euro balio dau.

**Berbaldia:** *Abenturea itsasoaren barrena*, Santi Gonzalez nabigatzaileagaz. Algortako Kultur Etxean, 19:30ean.

**Erakusketea:** Meninos e Meninas de Rua Euskal Alkarteak erakusketea zabaldu dau, Algortako Kultur Etxeko aretoan. Abenduaren 16a arte zabalik.

### SOPELA

**Ikastaroa:** Uribe Kostako Behargintzak erremontaritza artistikoaren ganeko ikastaroa antolatu dau, lan barik dagozan emakumeei zuzenduta. Datorren abenduaren 18an hasiko da.

Interesadunek Behargintzako egoitzan emon leikie izena, Sopelako Gatzarriñe kalean. Bertan izango da ikastaroa.

**Jaia:** Datorren domekan, abenduaren 15ean, Sopelako Ander Deuna ikastoleak Gabonetako jaia ospatuko dau. Jolasak

eta beste hainbat ekitaldi egongo dira herriko ikastetxean, goiz-goizetik.

### PLENTZIA

**Zinema:** *Tedio*, Cedric Kanh zuzendariaren filma emongo dabe gaur, Goñi Portal kultur etxean. Proiektzioa arrastiko 19:00etan hasiko da, eta sarrere doan izango da.

**Urteera:** Goñi Portal kultur etxeak urteera antolatu dau Bilboko Umeen Gabonetako Parkera, abenduaren 30erako. Izena emoteko epea hil honen 27a arte egongo da zabalik. Prezioa 6 eurokoa da. Informazio gehiago gura dauenak kultur etxera jo leike.

### LOIU

**Txorierriko Euskerearen Eguna:** Mankomunidadeko Euskera Zerbitzuak hainbat ekitaldi eratu dau, gaurko eta biharko, kiroldegian. Azkona taldeak Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoan ikuskizuna agertuko dau gaur, 10:45ean. Bihar goizean be izango dira umeentzako ekitaldiak, eta arrastian Oskorrik joko dau.